



Euskal-Herrira frente hotz bat etorri da, eta oso denbora gutxitan mendi eta bazter guztiak poesia zuriaz estali egin dira. Atzo, trabesiko eskieskin Beriainen egon ginen eta gaur, oso goiz, Larraitzeko ermita ondoan fondokoak jartzen aurkitzen gara. Txindokiko bidetik ia alotzaraino laino-pean goaz. Noizean behin jela-plaka batzu

azaltzen dira eta eskisak kendu behar izaten ditugu. Bapatean, lainoaren artetik azaldutako argitasunak goraka begirarazten gaitu borobil hori bat ikusiz.

Zenbait laino nagia Aralarreko beheko zatiaren paisaiak nagusitu egin dira.

Harnasa ondo eramanda, eskisa poliki poliki irristeatuz.

Borobil laranja bat lainoen artetik azaltzen da.

Terrala puskatzen du paisaia kolorez bainatuz.

Alotzako erreka ondoan, eseritak, denborari uzten diogu pasatzen.

Zerbait izatetik ezer izatera pasa dadin algodoizko lainoen artean desagertzen den bitartean.



Alotzako zelaiak zeharkatu ondoren, Irazustako leporuntz abiatzen gara

Laister Igaratzen gaude eta zertxobait jan eta gero unako putzu aldera gure urratsak zuzentzen ditugu! Bai ederrak direla paraje hauek fondoko eskiaz gozatzeko! Alde batetik Irumugarrieta (1), Tuturre (2), bestetik Txemiñe (3), Beloki, toki guztietan ixiltasuna, eguzkia ere.

Orain Beloki ondoan gaude, eta gure aurrean Prantses-Errekaraino eramango gaituen kilometro bateko aldapa dugu. Elur hautsa, algodoia bezala, gaur goizeko hodeiak bezalakoak. Gero, lehendabiziko aldiz, basoan sartzen gara, eta konturatzen garenezako Baraibarreko teilatu zuria ikusten ditugu eguzkia ia bihar arte doan bitartean.

Neguko haize hotzaren eraginez xuabe eta bortisiki eroritako milaka elur tantaz osaturiko bidearen aztar nak jarraituaz, basoaren adiskideak izango gara.

Eta bere sentimenduak gureganatuko ditugu.

Horrela, agian, bere neguko fantasia txuriaz hitzegiten digunean, ulertuko diogu...

(1) Intzeko torrea. (2) Tuturre. (3) Txameni.

**IBILBIDEA: Larraitz - Alotza - Irazustako lepoa - Igaratza - Unako putzua - Prantses erreka - Baraibar**

# MONT BLANC, AGUJA GRISSETATIK TRABESIKO ESKIZ EGINDAKO IGOERA BAT

**B**ANE, Rateau, Meijen, pasatutako eski-egunak atzean gelditu dira, eskiatzen jaistean elurretan utzitako aztarrak bezala. Eguraldia aldakorra, hotza hasieran epelagoa gero udaberriar baitgaude.

## Maiatzaren goiza batean...

Inongo presarik gabe, iluntasunaren azkeneko itzalak irabaziz, zuhaitzak, harriak, errekek, mendiak, hodeiak, forma hartzen doaz egun berri bat sortarazten. Nere sakuaren barrundik butaniloaren rum-ruma gustora entzuten dut esne potea bero beroa eskutartean anuntziatuz. Une hau oso berezia izaten da, batez ere oraindik oso beroa dagoen zure luma sakuak ihes egitera edo gehiago murgildu berotasun erakargar honetan gonbidatzen dizunean, grieta eta glaziarren errealitate izostutik alde eginez berriro.

Baina behin berriro (ze gogorak) goian gaude, mendieen konkistatzailetaz jantzirik, begiak ireki irekiak piloroa bezain zabalik.

Egunsentian ibiltzea, lurraren errelieveak oraindik insinuazio lumak direnean, artista ezezagun baten bukatu gabeko lanak baliza bezala, ederra iruditzen zait. Oso une aberatsa, aberatasun izpirituala, ikuituezina, sentitzen dela baina hor geratzen dena, goi mailako mendieen munduan bere ilusio eta motxilarekin sartzen den abenturazale txiki horrentzat. Lurraren ahaztutako bazterrak zapaltzen goaz, elur-puzketa gogorak, harri goibelak, glaziarraren morrenak, pinu erori bat, txorongo distraitu bat (alajaina zer usaina!). Unea kosmiko edertasunez jantzirik dago Peutereyko arista bidearen bazter bat pasatuz agortzen denean, luze, fina, zorrotza, lurra eta zeruaren arteko diferentzia markatuz, jendarme eta piko artean egindako jokuagatik osatuta. Begirada



hainbeste okertu gabe, gure bailaran hain zuzen, korredore luzeak, serak nagiak eta goian, oso urruti, mendi zuri eta edera bat, gure urratsak zuzentzen ditugun mendia, eskisak jarritak, pioleta motxilan, bakoitza bere erara bailara luzean zehar.



Orain glaziarean sartutak jolasten goaz pasorik oberena aurkitu nahian, hobe esanda honek gurekin jolasten du. Eta Judioek Itxaso-Beltzan egin zuten bezala, itxaso berezi honen barealdi bat aprobetxatuz zeharkatzen hasten gara. Apana berdez osatutako olatuak, goizeko eguzkipean tantaka dauden buruntziak, oso fidagarriak ez diren jelaz egindako zubiak, goiko mundu honetan normalak diren gauzeek osatuta, lagunak ditugu. Guretako batek, bero aren ondorioz noski behin baino gehiagotan anka uretan sartzen du. Zorionez, ertzean Gurutze Gorriak itxasoaren indarrez eta kordino bat eramateaz hitzegin zigun.

Trepada labur bat eta elur zaharretako korredore bat igo ondoren Gonnella izeneko aterpea ailegatzen gara, etengabe elur-plakak erortzen diren magale honetan zintzilikutarik dagoen toki bakarti honetara, solapa urdin eta frak zuri dotore batet jantzitako neurrigabetasun honetan.

## IBILBIDEA

**Courmayeur**  
- **Miageko**  
**glaziarra** -  
**Dorneko** -  
**glaziarra.**

**Gonnella**  
**aterpea**  
**(Gaua pasa).**

**Italianoren**  
**Pitoia** -  
**Wallot** -  
**M. Blanc.**

**G. Mulets** -  
**Bossons** -  
**Chamonix.**

## Kartografia

Institut Geographique  
National  
Massif du Mont Blanc  
(M. Blanc-trè la Tête)  
Eskala 1:25.000



### Goizean goiz...

Atzoko magale gaittoa zeharkatzen dugu, orain ondo izoztuta, eta berehala atzo utzitako glaziarrera heltzen gara.

Lehendabiziko urratsak eskisekin ematen ditugu baina elurra gogorra dago eta malda fuerte denez, bastoien laguntzaz Italianoeen pitun aldira altuera irabazten goaz.



Egilearen argazkiak

Krestaren gainean jarritak elurrezko merenge plasti hauen gainean jolastu behar dugu, zeharka nahiz kaskotik, udaberriko eguzkiari farre egiten dioten jela-plaka disdiratuez argiraturik. Eta horrela, piskanaka piskanaka, mendi honen gailurrera hurbiltzen gara, Chamonisetik etorritako jendearekin nahastuaz.

Ia konturatu gabe eskisen gainean jaisten gaude grieta eta serak artean. Beheko zatian elurrarik oberena, aiguille de Midiko

teleferiko zaharrera ailegatzen, elur udaberri nebero batean azkeneko jiroak ematen ditugu, derrabaje on batekin trabesia ederra hau bukatuz.

Gero sakuan, bero beroak, ekaitza gure gainean edukita, ba-koitza bere munduan murgiltzen da, sekula bere formarik errepikatzen ez dituen olatu urdinez itxaso zuri honetan egun batzuetatik zehar konpartitu ondoren.

# MONTAÑAS DE LA PENÍNSULA

## Unas montañas al sur

MANUEL GIL MONREAL

*Cerro del Lucero (1.771 m.),  
en el centro de la imagen.  
A sus pies, una cortijada  
en la que se puede acampar.*

**P**OR encima de las costas mediterráneas se alcanzan gran cantidad de sierras, a escasos kilómetros en línea recta, el relieve se torna quebrado y abrupto, en contraposición a la horizontalidad costera. Escasos son los enclaves de las costas del Estado español que no tengan su sierra característica. Los ruidos, la agitación de los lugares costeros desaparece a poco que nos alejemos de ellos, y en un corto intervalo de tiempo accedemos a cualquier pueblo serrano, con su tranquilidad de siempre. Se cumple aquello de tan cercanos y tan distintos.

En esta línea, queremos hacer una reseña sobre las principales cumbres de la provincia de Málaga. Esta provincia puede ser una en donde el contraste entre la sierra y la costa sea más acusado, y más próximo. Las cumbres de las sierras malagueñas no son nada despreciables, sus alturas rondan en ocasiones los 2.000 metros, con grandes desniveles, y sus paisajes en

múltiples ocasiones son destacables. Así encontraremos ciertos bosques de castaños, pinos, pinsapos y encinas. La fauna no está mal representada, con una abundante población de cabras montesas y variadas rapaces.

Las sierras malagueñas se alinean con una disposición de este a oeste. Así, por el este, en los límites con Granada, encontraremos una importante comarca montañosa conocida como la Axarquía. Sus cumbres más elevadas son la Maroma (2.065 m.), casi en tierra granadina, Cerro del Lucero (1.771 m.) y Navachica (1.834 m.). Hacia el otro extremo de la provincia se levantan la Sierra de las Nieves y los montes de Tolox, próximos a Ronda, y cuya cumbre más característica es la Torrecilla (1.919 m.). Existen otras muchas cumbres, otras sierras, que superan los 1.500 metros, pero no queremos cansar al lector, y sólo nos centraremos en las más destacadas.